

## **GAURKO GIZONAREN JARRERA JAINKOAREN AURREAN**

### **1. Gaurko gizona**

Zein da gizon au? Nongoa? Zeatz erantzuteko ikerketa luzea bearako litzateke. Baiña orain alkar ulertzeko, esan daigun gizon au geure inguruko kulturakoa dala, geien bat europarra, edo sartaldekoa, geure ikuspegitik esaten dogun lez.. Jakiña, gure inguruko gizaki ori ez da bat bakarra edo bardintsua, mailla eta era askotakoa baiño. Gaiñera, bakoitza bera ere ez da garbi talde batean kokatzen. Jarrera batera makurtzen da, baiña bearbada besteak guztiz ukatu barik.

Jarrera orreek izendatzean, ez gara emen inkesta soziologi-koetan oiñarrituko. Ezagunak dira orreek, interesgarriak, eta bearrezkoak. Euren ezagupen orokorra naiko dogu orain, gaurko idazkietan eta bizitzan asmatzen dogunagaz batera. Orrela gogoratzen ditugu gure kulturaren aurkitzen ditugun Jainkoarekiko jarrerarik nabarmenenak.

### **2. Jarrerak**

2.1. Ateoak, jainkogabeak. Olakotzat dauke euren burua, euren adimena, era batera edo bestera, trazendentzi personala baieztatzerantz eltzen ez diranez. Era diferenteetakoa izan daiteke ateismo au:

a) Zientziaren absolutismotik sortzen dana. "Zientziak" iker-tu daiken errealidadea baiño ez dago. Zientziak errealidade konkretu partikularrak ditu aztergai, eta olako errealidaderari dagokiozan aztergailluak eta azterbideak onartzen ditu bakarrik beretzat. Beraz, ortik kanporako errealidaderik ez da arentzat. Baiña au ez da zientziaren ondorioa, aurre-eritzia baiño: zientziarentzat, zientzia utsa danez, ez dago beste errealidadrik: ori da arek beretzat asikeratik mugatu dauan esparrua. Jakiña, zientziak eskubide osoa dau beretzat esparrua mugatzeko, baiña gero, bera, ezetariko muga barik, errealidade guztiaren aurrean ezagupen bakartzat jarten danean, baiez-tapen filosofikoa egiten dau, ez zientifikoa, au da, "dana" zer zan erabagitzen dau, eta ez bere esparru partikularra bakarrik (zientziari dagokionez).

b) Giza-askatasunaren alde sortzen dan ateismoa: Jaungoikoa balitz, gizona ez litzateke benetan aske, bere jabe eta sortzaille eta erantzule, Jaungoiko orrek mugatua baiño. Fededunarentzat, ostera, Jaungoikoa gizonaren askatasunaren aalvide da: Jainkoa barik, ez askatasunik: gizakia izadiaren zati utsa litzateke beste izaki guztien parean; bere askatasuna, beraz, munduaren parte, eta ilusioa bat "askatasuna" dalakoa. "Jainkoa" esatea, mugabakoa, baldintza bakoa (trazendentzia) esatea da, eta, beraz, zentzurik sakonenean, askatasuna esatea. Gizakiak "Jainkoa" esatean bere trazendentzia eta bere askatasunaren kontzientzia baiezten dau. Jainkoaz berba egiten danean, era berean gizakiaz berba egiten dogu. Baiña au, Jaungoikoa Jaungoiko gelditzen dan eiñean, eta ez gizakia Aren tasunez ornidu, jainkotu, eta bera bakarrik gelditzen danean (Feuerbach-ek egiten dauan lez): orduan gizakia leengo munduko-zati geratzen da utsean, eta jainkozko tasun guzti orreek ilusio uts.

c) Munduko txarragaitik sortzen dan ateismoa: ezin daitekez alkartu munduko txarra eta Jaungoiko aalguztidun ona. Bearbada auxe dogu arrazoirik zabalena eta indartsuena; osto-

porik gogorrena, askorentzat bearbada gaintu-eziña, Jaungoikoaganako bidean. Ulergarria guztiz, eta errespetagarria. Azken batean, erantzuna bakoitzak aurkituko dau “fedea” deitzen deusogun giza ekintza orretan. Baiña au ere autortu bear dogu: Jaungoikoa ukatuz, gizakiak itxaropena ukatzen dau, au da, txarra eta injustizia dirala garaille autortzen dau betiko. Istoriako biktimak betiko galduak izten ditu bertanbeera. “Jaungoikoa” esatea, ez da besterik gizakiaren itxaropena baieztatzea baiño. Alan ere, trazendentzi eta askatasun dan, eta gizakiaren askatasun eta itxaropen espazio dan Jainko ori zelan alkartu munduko txarragaz: ona emen beti ere guretzat pentsa-gai agor-eziña. Or jokutzen zer-nor dan Jaungoikoa konkretoki. Munduko txarra beragan artzen dauan Jaungoikoa (Jaungoiko danez) izan daiteke bakarrik Jaungoiko.

d) Egitezko ateoak (praktikoak): Teorikoki argi aztertu eta erabaki barik, bizitzaz erabakitzen dabenak.

2.2 Agnostikoak. Jainkoaz ez dabe baieztapenik egiten, ez alde batera, ez bestera. Gizonaren ezagupen-gaitasunari buruzkoa da zuzenean euren jarrera: a) Edo, egitez, oraingoz ez dakigu ezer ziurrik Trazendentziaz, b) edo, teorikoki, gizonak ezin daike ezer ziurrik Jainkoaz jakin. Jarrera guztiak artu bear dira zabaltasunaz. Emen, auzia eta aztertu bearra onetan datza: zer dan “jakitea”, eta zer “ziurtasun” nai dan.

2.3 Tankera barria dogu Jainko-arazoak gaur ez daukala garrantzirik edo ezta zentzunik be diñoenena: gizon eldu ikasia ez da ez siñestedun ez siñestebako; arago dago; ez dau olako arazoen ardurarik. “Jainko” itzak ez dauka zentzunik. Ardura eta garrantzia bakoitzarenak dira, subjetoak eta erlatiboak. Baiña jarrera ori pentsagarri da guretzat. Zergaitik eta zer zentzutuan galtzen dauan garrantzia Jainko arazoak. Jarrera onen atzean Jainko arpegiaren arazoa dago. Zentzuari buruz, oster, nai ta eragozpenak ere izan, guk ulertzen dogu zelanbait alkar emen Jainkoaz berba dagigunean. Teoriaz baiño geiago egitez,

onelako jarrera daukenak baliteke asko izatea. Jarrera onetan ere, azal naroaren azpian, nora-ezaren eta bakartadearen izua nabari daiteke. Eta, dana dala, berez eta objetiboki, gizakiari itxaropena ukatzen jako.

2.4 Jainko inpersonala iruditzen dabenak. Ortik, sortaldeko erlijio edo "jakituria" era batzuen erakarpena, edo New Age lako mobimentuen arrakasta. Jainko inpersonalaren irudiak, alde batetik, giza irudiko Jainkoagandik alde egin nai dau; beraz, Jainko trazendentearen bidea litzateke; eta emen datza bearbada bere erakargarritasuna. Baiña, bestetik, Jainkoa munduko indar orokor ezkutuagaz zein norberaren gorengo baketzeagaz bardintzen da<sup>1</sup>. Orrela barriro ere giza-irudietan jausten da. Eta, gaiñera, orain persona baiño gitxiago dan indarraren irudipean, adimen eta askatasun bako indarraren irudian (inpersonala danez).

2.5. Jaungoiko personalean siñisten dabenak. Geure inguru kulturalagaz diardugunez, kristau siñismena dogu gogoan. Inguru onetan, besteetan lez, askok eta askok billatzen dabe, duda harik, era batera nai bestera, Jaungoikoaren aurpegia. Alan be, geiago edo gitxiago olako jarrerak aurkitzen dira eta naastatu ere egiten dira: a) Jainko majikoa billatzen dauana. Neure serbitzurako eta neure gogara dagoana. b) Jainko banatzaillea: gure Jainkoa, eta besteen kontrakoa litzatekena (intolerantzi eta gogorkerien ispillu eta zuritzea. c) Naierako Jainkoa (bizitza ezetan aldatzen ez dauana). Ez dau ezer eskatzen edo bultzatzen; neure errealidadea dagoanean onesteko baiño ez da. Gaur bearbada edatuen joango dan Jainkoarekiko jarrera. Etorkizunik bakoa. Jainkoa ezin daiteke inondik ere bizitzako apaindura ariña izan. Erlijio ariña erlijio-ezaren leenen-

<sup>1</sup> J. SÜDBRACK, *La nueva religiosidad. Un desafío para los cristianos*, Madrid 1990. Atcismo eta agnostizismoari buruz: WALTER KASPER, *El Dios de Jesucristo*, Salamanca 1985; JUAN L. RUIZ DE LA PEÑA, *Crisis y apología de la fe*, Santander 1995.



go pausua. d) Jainko illun zemaizkoa. Epaille zorrotz, beartzaille gogor, eskale ase-eziña. Edo giza-biziaren etsaia, era askotara. Duda barik, leenago irudi au (eta dagokion giza-jarrera) zabalagoa zan. Baiña, erlijioa serio artzen dabenen artean orain ere bada. Izan ere, arazoa sortzen da irudi onen eta aurrekoaren artean: Jainko au ala naierezko Jainkoa (ezer eskatzen ez dauana)? Bigarren irudiaren ordezt, bearbada ez gitxik aurrekoa artu dabela dirudi, ezetariko konproniso bako siñis-men utsala agertzen dabenez. Badago emen egiturazko arazoa, estrukturala, zemaizko Jainkoaren eta Jainko ariñaren artean. Baiña zemaizko Jainkoaren ordeztkoa ezin daiteke naierezkoa izan, seriotasun bakoa.<sup>2</sup>

### **3. Oarkizun batzuk**

Aipatu bakarrik egin ditugun jarrerak dirala ta, oarkizun batzuk geitzen ditugu.

3.1. Leenengo ta bein, barriro azpimarratu bear dogu ezer bada gaitzik Jainkoaren irudia eta Areganako giza-jarrera aztertzea eta eskuratzea dala. Ikerketa soziologikoak, berezko danez, personeren erantzunak dabez oiñarri, edo baita, egiteak, eta zearkako erantzunak ere. Baiña batek bere egite eta esaldien bidez eskeiñi daikezan erantzunak eta aztertzaileak irakurri leikezanak ez dabe azaltzen emen gogoan dogun errealdadea, Jaungoikoarekiko jarrera. Edo erdizka, neurri batean, urriñeko aipamen erara, agertzen dabe bakarrik.

3.2. Orregaitik, gai onetan garrantzizkoena da zelako Jainkoaz berba egiten dan. Leenago, Aretaz itz egitean jakiñekotzat emoten zan sujetoa (Jainkoa zer edo nor zan). Gaur, is-

<sup>2</sup> Aipaturiko alderdi batzuetarako ikusi daiteke: JOSÉ MARIA MARDONES, *Para comprender las nuevas formas de la religión*, Estella 1994; *Análisis de la sociedad y fe cristiana*, PPC, Madrid 1995.

toriaren bidearen ondorioz, sujetoaren esanaiaren garrantziaz konturatu gara . Esanai orretan zeleanbait bat etorri barik, ez dago zeatz itauntzerik eta erantzuterik. Egia da ateoak beti esan dagikela: mundu au baiño ez dago, esperientzi mundu au baiño ez. Ezeztapen orokor onek alperriko egiten dau Jainko ideiaz aurrera jardutea. Alan ere, beti itaundu leiteke: Eta zer da mundu au? Edo non amaitzen da esperientzia? Mundu onen esperientzian ez este daukagu, esate baterako, personearen esperientzia, eskubidearen, zuzentasunaren, etikaren esperientzia? Zer esan nai da, beraz, esperientzi mundu au baiño besterik ez dagoala esatean? Zer baiezten da eta zer ezezten?

Bai pastorgintzan eta bai geure siñismen-bizitzan, garrantzirik andienekoa dogu Jainko ideia argitzea. Zer ukatzen dan: Jainko etsaia, jauntxo apetatsua, superstiziozko idoloa (adibidez)? Eta baiezten danean ere, bardintsu.

3.3. Jainkoagan siñisten dauanak, bizitza-autapena egiten dau. Baiña ateoak ere, eta agnostikoak berak ere bai, bizitza-autapena egiten dau. Pentsa daiteke agnostikoa erdian gelditzen dala, aukerapenik egin gabe. Egitez, baiña, bere bizitzari jainkozko zentzurik emon bage gelditzen da. Edo, beste era batera esanda, gitxienez ez-baizko zentzu ori emoten deutso bere bizitzari. Ez da nire asmua onetan sakatzea, baiña gogoratu bearrekoa da, batzuk ez-siñestea jatorragotzat daukenez gero. Beste alde batetik, siñesten dauanak ere billatzen jarraitzen dau.

3.4.Siñeste eta ez-siñestearen arteko mugak, sakonean, ez dirala ain argiak, zeatzak, konturatu gara. Esandakoagaitik: Jainkoa ukatzen dauanak (edo adimenean baiezten ez dauanak) idolo bat ukatzen dau bearbada. Eta au olan izan leiteke, naiz ta ideia garbi eta ebanjelikoak inguruan aurkitu: baliteke egitez ideia orreek beragan idolo izatera baiño ez eltzea.

Gogoketa bardiña egin bear da Jainkoa baiezten dauanaz: benetan Jainkoa baiezten dau ala idoloen bat? Azken gogoke-

ta bakoitzari dagokio. Baiña ideia erlijiosoen azterketak ondorio au emoten deusku: irudi asko idoloak baiño ez dirala eta benetako Jainkorik ezin daitekela or asmatu. Espiritualitate bidea idolo-jarreratik Jainko biziaganako jarrera bidea dogu.

Egoera au zailla izan arren ez da atsekabea eta larria sortzekoa. Azaleko soziologi alderditik begituta, etsipenean jausi gaitkez; eta begirada au naitaezkoa dogunez, beti ere arrisku orretan egongo gara. Arrakasta soziologikoa garrantzizkoa da beti gizakiarentzat, eta beraz ezin gaitkez etsipenak ikutu-eziñak izan. Au ukatu gabe, baiña, gaurko egoereak (mugak ain argiak ez izateak), itxaropena eta apaltasuna sortzen ditu, au da, siñismenaren jarrera jatorrak. Itxaropena: Jainkoa bera lez, siñismena ere askoz andiagoa, sakoanagoa, eta ulertu-eziña agertzen dalako. Irudiak eta ideiak garrantzizkoak izan arren, Jainkoaganako jarrera bizitzako azken erabagietan, geure izate aske eta erresponsablean gauzatzen dala somatzen dogulako, eta, beraz, zeatz ikusi eta esan daiteken baiño zabalagoa dalako. Onek ez dauka indiferentismoaz zerikusirik, ezta pastoralgintzako itzikeriagaz ere. Indiferentismoak au esango leuke: benetako siñismena gure irudi eta ideiak baiño arago dagoanez, oneek ez dira garrantzizkoak, ez da arduratu bear areetaz. Jakiña, jarrera onek erlijio-espresio guztiaren gainbera dakar beragaz. Ostera, borondate onak egia billatzen dau. Eta benetako Jaungoikoa eta aregazko jarrera gure irudi eta espresio-bide guztiak baiño arago egon arren, gure ideia eta espresio-bideetan ere gauzatzen da naitanaiez, Aretaz ezertan ari garan neurrian. Or gauzatzen ez dana, ezerezean jausten da. Jaungoikoarekiko jarrera espresio-bide guztiak baiño arago dagoala esatea bera ere irudiari lotuta dago, baiña alan ta guztiz ere zelanbait egia ikutzen dauala uste dau.

Itxaropenegaz batera apaltasuna sortzen duala esan dogu: apaltasuna besteak epaitzean, eta apaltasuna Jaunaren aurrean. Jarrera au, kristaua danez, ez da izu-ikara edo larria, konfiantza barriaren bidea baiño.

### 3.5. Danontzako aukera

Bide neketsua dogu egitez gurea, geure irudi sensibleetatik erantsi erazten gaitualako. “Irudiak” esatean ez dogu benetan arazoaren sakona azaltzen: irudi eta gurari eta geure esistentzia ulertzeko era da. Orregaitik urradura lakoa eragiten dau gudan konturatze eta aldatu bear onek.

Baiña, sarritan esana, gaurko egoera au benetako siñesmerako bidea dogu, benetako Jaungoikoaganako bidea. Ez zaila dalako, idoloen arrisku gitxiagokoa dalako baiño. Eta, dana dala, ori dogu gaur guri eskeintzen jakun bidea.

Bide ori ez datza, azken baten, adimenean, Jainkoaz ideia garbiagoak izatean, naiz ta au ere garrantzizkoa izan. Jaungoikoaganako bidea bizitza-jarreran jazo bear dau, artu-emon “etikoan” (au zentzurik zabalenean eta sakonenean artuta). Ez Jainkoaz jabetzean (Jainkoaren posesioan, ideia eta irudi argien bidez), norbera Jainkoari emotean baiño, eta au bizitza-jarreran jazoten da bakarrik azken batean. Orregaitik, beste aldietan zelako siñismen konkretoa izan daben edo gaur bertan jente xeeak eta borondate onekoak zelako jarrera daben ez da epaitzen ideia eta irudien garbitasunaren arabera. Ez dot garbitasun au gitxietsi nai; gure gogoketa oneek ere Jainkoarekiko ideia garbiak lortzeko dira. Baiña, au ukatu gabe, bizitza-jarrera markatu gura dogu, eta bizitza eraldatzen daben esistentzi-jarrerak.

Gaurko ebanjelizatzearen punturik garrantzizkoenatarikoa emen dogu: Jaungoikoaren aurpegia, zelan-alan, billatzean, erdi-asmatzean. “Aurpegia” deitzen dogun orretatik artu bear dau argia eta zentzua kristau fede guztiak. Eta, bestalde, aurpegi ori asmatzen siñesmenaren eduki guztiak artzen dabe parte. Ez da lortzen “Jainkoari” bakarrik begituz; guztiz esentziala ditugu “etika” eta liturjia ere (eta otoitz-bide guztia).

*Luis Arostegi*